

Lekanda'ri

Igotz

Goizaro ederrez mendira naiz urten,
Izadi-lilluraz biotza gozaten.
Zeanuri dakust azpian,
Lekanda zangartsu goiean.

Lekanda! Lekanda!, arren, entzuidazu,
Zure aurrean zut oiuz bai naukazu.
Bidaztia nozu txit goiztar,
Onaiño eldua soin-dardar.

Lekanda! aitaso goi, aitaso zar-lerden!
Zanburu daukazu oiñaulki guren.
Goian buru-dirdai laiñoa,
Beerago gurtzaille pagoa.

Begi zorrotzeko erkaba maitati,
Bizkaia osoa zaintzen dozu orti.
Zu zaitugu beti ongille.
Gure soin-gogoen jagole.

Sai, erroi ta bela or dozuz inguru,
Danentzat dozu zuk txera ta maite-su:
Or ardi zuriak larratzen,
Or artzain ernaiak oiutzen.

Gizona ez dozu iñolaz ezesten.
Au ankerra, baiña! Biotz-gea esten?
Inguruko eder osoak
Ondatu dautzuz txit gaiztoak!

Lekanda! noiztik zu, or goian, ain erne?
Zuk ba-dakizu, bai, zer dan mende-barne.
On ta gaitz dakizu guztia
Euskal erriaren zoria.

Aldagaitz ta tinto bai zara aldioro
Zuk dakizu ziur gure samin oro.
Zagoz ortxe beti, aitaso,
Begiratuz mendi ta baso.

Lekanda! Lekanda! entzuidazu, arren,
Ene barnetiko naigabe-asperen:
Gorde zuk, gizaldiz gizaldi,
Zure erriaren min aundi.

Erauntsi eskerga pean el naiatzu
Zuri nairik oiuz biotza asazkatu
Ez dozu nirea bakarrik,
Euskaldunarena osorik.

Zure gilborreko agin ostotsuan
Sarri gorde nozu beroki gozoan:
Gaur ona nire eske bizia,
Gorde egizu euskal erria!